

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeak % 20 handituko du lankidetzaproiektuetarako laguntzen aurrekontua

Gaur Iruñean bildu den entitatearen batzarrak ontzat jo ditu 2019rako aurrekontu-orientazioak, mugaz gaindiko jarduerak finantzatzeko aurreikusita dauden 1,2 milioiko funts propioak barne

Ostirala, 2019.eko martxoak 22

Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeak % 20 handituko du hiru lurraldeetako eragileek garaturiko lankidetzaproiektuetarako laguntzen aurrekontua, gaur arratsaldean Nafarroako Jauregian antolatutako urteko batzar nagusian jakinarazi dutenez. Bertan, besteak beste, 2019rako aurrekontuen nondik norakoak aztertu dira eta, aurreikuspenen arabera, 1,2 milioi bideratuko dira funts propioetatik mugaz gaindiko ekintzak finantzatzera.

Hitzorduan parte hartu dute hiru lurraldeetako lehendakariak: Uxue Barkos, Nafarroako Lehendakaria, Euroeskualdeko lehendakari den komunitatearen izenean; Iñigo Urkullu, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria, eta Alain Rousset, Akitania Berriko Lehendakaria, Batzarreko gainerako kide guztiekin batera.

Nafarroako ordezkariak Manu Ayerdi, Garapen Ekonomikorako lehendakariordeak; Miguel Laparra, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak; Ana Olló, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak; eta, Pello Pellejero, Komunikazio eta Erakundeekiko Harremanetarako zuzendari nagusiak.



Euroeskualdeko batzarreko kideak Tronuko Aretoan.

Adierazpenak

Batzarraren ostean, hiru lehendakariak prentsaurrekoa eskaini dute. Uxue Barkos, Nafarroako Lehendakariak, “historia, kultura eta amankomuneko hainbat interes ditugun herrialdeen artean Europako lankidetzarako espazio interesgarriaren sendotze unean gaude”, adierazi du, eta hala Euroeskualdeak beraien kideei Europako testuinguruan “leku hobean” egotea ahalbidetzen diela azaldu du.



Barkos, Rousset eta Urkullu lehendakariak Euroeskualdeko batzarreko amaieran eskainitako prentsaurrekoan.

Lehendakariak entitateak lantzen dituen hainbat proiektu aipatu ditu eta horien artean, mugaz gaindiko mugikortasuna lantzen duen *Transfermuga*, eleaniztasuna eta irakasleen garapen profesionalaren *Eskola Futura* eta mugaz gaindiko lana sustatzen duen *Empleo* aipatu ditu, 2018an zehar hainbat errekonzimendu jaso dituzten proiektuak.

Iñigo Urkullu lehendakariak azaldu duenez, “Gaurko Batzarrak Euroeskualdearen etorkizuna guk gizartearen ongizatea eta bizi kalitatea hobetzeko, eta enfasia, bereziki gazteengan jarriz, bultzatu ditzakegun ekintzekin lotuta dagoenaren konbikzioa indartzen du. Auzolana filosofiaren aplikazio praktikoa da, lengoaia internazionalen lankidetzarako-printzipioz ezagutzen dena.

Azkenik, Rousset-ek nabarmendu du Nafarroa, Euskadi eta Akitania Berriaren arteko lankidetzak, euroeskualdearen esparruan, “Europako eraikuntzaren adibide ona” dela Europar Batasunaren etorkizunari buruzko egungo eztabaidan. Halaber gazteriaren ekarpena garrantzitsua dela nabarmendu du.

Batzarraren edukia

Batzarrak 2018an egindako jardueren balantzearen berri izan eta egungo ekitaldirako aurrekontu-aurreikuspenak aztertu ditu. Horrez gain, Euroeskualdeak urtero aurkeztu ohi dituen bi laguntza-deialdietako lehena onartu du.

Hartara, antolakundearen aurtengo aurrekontua 3,5 milioi eurokoa da, eta adierazi den bezala, zenbateko horretatik, 1,2 milioi mugaz gaindiko proiektuak garatzeko funts propioei dagozkie.

Lau dira lehentasunezko lan-ardatzak. Lehendabizikoak Euroeskualdearen antolaketarekin zerikusia duten jarduera guztiak biltzen ditu (eleaniztasuna, kultura, gazteria, eta bigarrenak ezagutzaren, berrikuntzaren eta enpresa-lehiakortasunaren ekonomia eta unibertsitate mailako mugikortasuna sustatzea du helburu. Hirugarren eta laugarren ardatzek lurralde iraunkortasuna sustatzea (mugikortasuna eta garraioa, nekazaritzako baliabideak, ingurumena eta turismoa) eta Euroeskualdearen gobernantza eta ikusgaitasuna bultzatzea dute helburu, hurrenez hurren.

Jarduera esparru honen arabera, aurrekontua honela banakatu da. Alde batetik, urteko bi laguntza-deialdiek 800.000 euroko guztizko zenbatekoa izanen dute (2018an baino 100.000 euro gehiago). Kopuru horretatik, 450.000 euro gaur onaturiko lehendabiziko dirulaguntza-ildoari dagozkio, kultura, ondarea, hezkuntza, kirola eta eleaniztasunaren arloko proiektuak finantzatzeko. Bigarren seihilekoan, bigarren deialdia onartuko da, 350.000 eurokoa, ekonomia, ikerketa eta berrikuntza arloei zuzendutakoa.

Bestalde, lankidego estrategikoko proiektuek 400.000 euro jasoko dituzte, eta diru horren laguntzaz, egun indarrean dauden ekonomia, kultura, hezkuntza eta kirol arloetako mugaz gaindiko aliantzak finantzatzeko dira, baita sor litezkeen lankidetzak berriak ere, eta 100.000 euroraino gehituko dira (% 66 gehiago) Euroeskualdeko unibertsitate mailako ikasleentzako beketarako funtsak.

Baliabide propio hauei esker, Euroeskualdeak, hiru lurraldeetako eragileek sustaturiko hogeita hamar bat lankidetzako proiektu finantzatzeko dituzten urtero, baita POCTEFaren bitartez Europako finantzaketa duten beste hiru proiektu ere: *Transfermuga*, mugaz gaindiko mugikortasunari buruzkoa; *Eskola Futura*, eleaniztasuna eta irakasleen garapen profesionala uztartzen dituen, eta *Enplegua*, mugaz gaindiko enplegua sustatzea xede duena. Proiektu hauek milioi 1 euroko guztizko dirulaguntza dute eta 2018an Europa mailako hainbat aintzatespen jaso dituzte.

100.000 kilometro koadro eta 9 milioi biztanle dituen taldea

Egungo Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa LLETa (Lurralde Lankidetzako Europako Taldea) 2017an sortu zen, Nafarroa sartu zenean. Urtebete lehenago, 2016an, Frantziako Limousin eta Poitou-Charentes eskualdeak Akitania Berriko egiturari sartu ziren. Hala ere, hiru eskualdeen arteko lehendabiziko harremanak 1992koak dira.

Nafarroa taldeko lehendakaria 2018az geroztik, eta kargu horretan izanen da 2020ko ekainera arte. Geroztik, Euskadik hartuko du lekukoa.

Antolakundeak 101.000 kilometro koadroko azalera du eta 8,7 milioi biztanleko populazioa, hots, Europako biztanleria osoaren % 1,74. 2018ko datuen arabera, 3,95 milioi langile ditu, 1,78 milioi ikasle, % 10,5eko langabezia tasa eta 28.400 euroko BPG biztanle bakoitzeko, EBeko batezbestekoaren parekoa.

Euroeskualdea benetakoa aukera-eremua da atxikitako eskualdeentzat, izan ere, lehentasunezko sektoreak partekatzen dituzte dagozkien espezializazio adimenduneko estrategietan; hala nola, osasuna, energia, nekazaritzako elikagaigintza eta sormen-industriak, baita hainbat gaitan elkarrekin lan egiteko interesa ere, esaterako: turismoa, industria aurreratua edo 4.0, eta enpresen lehiakortasuna.

Galería de fotos



Batzarreko lehendakaritza.



Euroeskualdeko batzarreko bista orokorra.